



Andoni Kortajarena: euskara bihotzean

ARANTZA KALZADA

Euskararenganako maitasunagatik, gizon eta emakume askok lana besterik ez dute egin, gure herrian dugun altxor preziatu hau desager ez dadin. Euskalzale mordo batek egin du lan, gure ama hizkuntzak bere azkena eza gutu ez dezan eta horien artean, Andoni Kortajarena aurkitu dugu. Gure artean bizi bada ere, bera izatez Herreratarra dugu baina edonon dagoela ere, euskera arloko ikasketetan murgiltzen da, zuek IPP-ko "Saski Naski" sailetik eza gutuko duzue.



"Orain amesturiko gauza guztiak egiteko denbora daukat (Argazkia: M. Etxeberria).

Hautzarotik gaztarora

"Herrerako auzoan jaio nintzen orain urte asko eta koxkortu nintzenean, La Salletarren ikastetxean hasi nintzen nere lehen ikasketetan eta han ere erdararekin lehen harremana izan nuen, nik euskara nuelako hizkuntza bakarra". Era honetan mintzatu zitzaigun gure

solaskidea bere euskararenganako lotura betidanikoa izan dela argi utziz. Etxe giroan, Andoni Kortajarenak, euskaraz eta zehazki gipuzkeraz hitz egiten zuen. Garai haietan bere auzoan euskara zen gehien entzuten zen hizkuntza eta kale, etxe nahiz famili artean hura zuten hizkuntza bakarrenetakoa. Eskolatzean orduan ika-

si zituen erdarazko esaldi eta aditzak. 13 urte zituela almatzen batean laguntzaile hasi zen: "... garai haietan hilerio 6 duro irabazten nituen, dana etxean geratzen zelarik". Baina garai gogorrek bizi behar izan zituen 1936 uztailaren 19 bizimodua dana aldatu zen, derrigorrezko soldaduzka egiten ari zelarik gudari joan zitzaigun Andoni



Kortajarena. Argi eta garbi ikusten zuen guda zibil hartan nork zuen arrazoia baita noren alde jokatu beharra zuen: "Gogoz gudari bihurtu nintzen baina mendian larrialdi ugariren ondoren espetxeratu ninduten eta 3 urte igaro nituen preso". Gardentasun osoz eta ezer ahaztu gabe aspaldiko kontuak azaltzen dizkigu, detaile txikiena ere aipatu gabe ezin utzi eta jakin genuen nola mendi magalean beldurraren beldurrez beraien kontrako erasoaldia prestatzen ari zirenen susmoa ekarri ziela baserritar baktek. Ilunabarrean ikusi zituzten sei gizonen irudiak eta, nolana-hi ere, erasoari gogoz egiteko asmotan lorik hartu gabe egon ziren. Goizaldea iritsi zenean, makurtuta zihoazten baina gerturatzean sei behor belarretan bazkaltzen zebiltzala zirela konturatu ziren.

Txunditurik geratu ginen, hauek ez bait dira atzo goizeko kontuak. Pasarte ugari izaten ditu gogoan, gudari garaiko gogetak, Herrerako San Luis elizatzoxa Teresa Barkaiztegi izeneko emakume baten senarraren omenez eraikia izan zela... Eta berak abilezi hau ere aitortu zigun: "Bai, lehengo gertakizunak argi eta garbi gogoratzen ditut, baina atzokoak

erabat ahazten zaizkit. Dena den, esan behar dizut guda ondoren, 27 urte nituelarik, kontable ikasten hasi eta ondoren lan horretan aritu nintzela. Eta gehio esango dizut, gidatzeko karneta 55 urterekin ateratu nuela eta E. G. A. titulua 65 urterekin".

Gaztaro zaila izanik ere guda zakarra ezagutu zuelako baina bakoitzaren etorkizuna ez dago bere esku norberaren jokabideaz gainera bere bizitza irauli baitaiteke. Era honetan idatzi zuen Andoni Kortajarenak "Gaztaro negargarria" izeneko ipuinean, non "Zahartzaroz ezizua"rekin batera Donostiako udaletxeak jubilatu eta bizisaridunentzako lehendabiziko literatur lehiaketa lehen saria irabazi zuen.

Euskararenganako maitasuna

"Nik beti euskara izan dut, nire emaztearen ondoren, noski, gauzarik garrantzitsuenak. Hitzez bai ezagutzen nuela baina hizkuntza ere landu, ikasi, ikertu eta erabili egin behar da". Euskararenganako begirunea bere eginkizun guztietan antzematen zaio Andoni Kortajarenari. Juanita Lesmez bere emazte oiartzuarrak buruaz

baietza ematen digu ere, "gure semeek -kontatu zigun emazteak- etxean euskaraz egiten zuten egin behar bestela errietarik jasoko zuten aitarengandik. Eta beste gauza bat esango dizut, Francoren garaian euskara zapaldua zegoela, tira, ez dizut ezetzik esango, baina hori kalean zen, zeren etxean nahi haina euskara egin zitekeen beraz nahi zuenak baizeukan bere semearekin euskaraz hitzegiterik". Andoni Kortajarenak ez zuen bere hiru semeen artean euskararen hazia erein soilik, Zeruko Argia aldizkarian 1967.an idazten hasi zenean bere hitzak inprimatzen zirenean bere zintzotasuna agertzen zuen ere. Baina euskararenganako lotura hau beste arlotan egin zuen, Zeruko Argiaz gain, Euskal Telebistan filmeetako gidaien itzulpen lanetan aritu zen ondoren telebistako azpititulutan azaltzen zirelarik. Lehen aipatu bezala ipuin eta olerki lehiaketetan parte hartuz eta Diario Vasco egunkarian ostegunero zeozer idatziz eman ditu bere lanak. Andoni Kortajarena bere zahartzaroz, amets guztiak egi bihurtzen saiatu da, euskara lantzea: "Nik beti pentsatzen nuen denbora banu nere burua landuko nuke, euskara arloan,



betidanik euskalduna izan baina ez nuen inoiz hizkuntza landu. Horregatik behin ere ez delako berandu eginkizun onak egiteko, batez ere bihotzak agintzen duenean, alfabetatzeko ikastaro batean izena eman nuen. Maisuak ea sutara nentorren galdetu zidan bere ustetan nik primeran menderatzen bait nuen gure hizkuntza, baina nik alfabetatu nahi nuela argitu nion". Andoni Kortajarena, dena dela, euskara batuaren esistentzia onuragarritzat jotzen badu ere, kezkarik badu: "... batuak beste euskalkiak zapuzten ditu, Bizkaiera, Gipuzkera... Gure etxean ez dugu elkar ulertzen, umetxoak ez gaituzte ulertzen...".

Euskara jatorrak errespetatzearen alde dago bestela gureak egin du, euskara amankomun soilean geratu ez gero. Hau dela eta, *Euskerazaintza*, Euskara Herri Akademia izeneko taldean idazkari ordeko izendatu dute. Batzarreak egin, euskara jatorraren kontrako hanka sartzeak aztertu, okerrak zuzendu eta lehiaketak antolatzen saiatzen dira bertatik.

Andoni Kortajarena ez dago asperturik, egunkarietan eta orain *Euskerazaintza* jasotako eginkizun berriaz gain euskalzale askorekin mintzatzen da: Lino Akesolo, Txillardegia... Egun irrati, telebistak edo eguneroko bizitzan egiten ditugun astakeriak zuzendu asmoz jarraitzen du lanean. Bere mezurik eman nahi dizuegu azkenik, eta zuek atera ondorioa.



Andoni Kortajarena etxeko partetan bere sari kuttunak gordetzen ditu (Argazkia: M. Etxeberria).

*Euskararik gabeko Euskadi
alerik gabeko ale-zorroa bezala,
gauza hutsa delarik".
Nola uler daiteke,
abertzaletasun ardatza izanik,
"Abertzalea naiz baina ez dakit euskerarik"
Bere amak ulertu ezin dezakeen hizkuntzan
mintzatzen zaiotelarik.*